



2002/09/03ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko uztaila

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZE OROKORRAK BERE HORRETAN IRAUN ZUEN 2002KO UZTAILEAN

Urte arteko hazkunde-tasa (2002ko uztaillekoa, 2001eko uztaillekoarekin alderatuta) % 2,0koa izan da.

2002ko uztaillean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorraren balioak ez ziren aldatu, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko uztaila, 2001eko uztailaren aldean) begiratuz gero, % 2,0koa izan da kostuen goratzea; aurreko abenduaren aldean, berriz, % 2,6 igo da tasa lehenengo zazpi hilabetean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia uztailleko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Uztaillean, lehengaien kostuek nahiz lan-eskuaren kostuek bere horretan iraun dute, aurreko balioetan. Hala ere, urte arteko aldiari, lan-eskuaren kostuek % 4,0ko igoera izan dute; lehengaien kostuek, berriz, % 0,7koa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute uztailean: balioak mantendu egin dituzte lehenengo lehengaien kostuek (% 0,0), eta % 0,1 jaitsi dira bigarrenarenak. Alde txikiok, era berean, urte arteko bilakaeran gertatu dira, zeren bi azpisektore horietako lehengaien kostuek, uztailean, % 0,7ko tasa lortu baitute *eraikinak* atalean eta % 0,6koa *obra zibila* atalean, aurreko urteko hil beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko uztailean, hauek izan dituzte prezio-jaitsierarik handienak: *asfaltozko produktuek* (% -3,4), *leherkariak eta gasek* (% -1,9) eta *olioak eta koipeek* (% -1,6), besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenenak kontsumitutako produktuen artean ageri dira: *makineria erabilirako osagarriak* (% 5,2), *pinturak eta bernizak* (% 5,1), *laneko arropak* (% 4,2), *zementu artifiziala* (% 4,2) eta *metalezko bestelako gaiak* (% 4,1), eta besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO UZTAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,9	0,0	2,0	2,6
ERAIKINAK	119,3	0,0	2,0	2,5
OBRA ZIBILA	117,7	0,0	2,0	2,9
LEHENGAIEN KOSTUA	113,1	0,0	0,7	1,6
ERAIKINAK	113,7	0,0	0,7	1,5
OBRA ZIBILA	111,3	-0,1	0,6	2,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: 945 017 500. Faxe: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta
	Tel.: 945 017 505. Faxe: 945 017 501
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es